

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Leon Bilbao Ibarretxe

*Artea, Bizkaia
(1916-1990)*

Aurkibidea



Biografia



Arteako Presalde baserrian jaio zen. 13 urterekin hasi zen alboka jotzen, aitak irakatsita. 1964an Maurizia Aldeiturriaga pandero-jotzailearekin bikotea osatu zuen eta handik aurrera batera ibili ziren biak Bizkaiko herrietako erromeriak alaitzen. Aurrerago, [Bonifazio Arandia 'Fasio'](#) soinu-jotzailea batu zitzaien. Hainbat disko grabatu zituen eta albokari gazteen maisu ere izan zen; Ibon Koteron da haren ikasle entzutetsuena. Alboka egilea ere bazen. 1990eko abenduaren 18an hil zen, 74 urte betetzeko egun bat falta zuela.

Zintak

ATE-012

- **Proiektua:** IRALeren Bizkaiera Bilduma
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirresarobe, Kolesti - Arregi, Iñake - Garcia del Castillo, Maite - Velasco, Iñaki
- **Data:** 1989-05-01
- **Iraupena:** 69 min
- **Euskarria:** VHS Standard
- **Kodifikatzailea:** Agirrebeña, Aintzane

Pasarteak

1. "Jotea", Leon Bilbaok albokarekin jota

- **Erref:** ATE-012/004
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:02:57. **Bukatu:** 00:05:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

Leonek "jotea" jotzen du albokarekin.

2. "Porru" Leon Bilbaok albokarekin jota

- **Erref:** ATE-012/008
- **Iraupena:** 0:01:39. **Hasi:** 00:07:42. **Bukatu:** 00:09:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

Leonek "porrue" edo porrusalda jotzen du albokarekin.

3. Gerra aurretik herriko gazteekin; gerraostean Mauriziarekin

- **Erref:** ATE-012/010
- **Iraupena:** 0:00:57. **Hasi:** 00:09:28. **Bukatu:** 00:10:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

Aita ere albokaria zen, baina gutxi jotzen zuen erromerietan. Garai batean ohitura zen albokarekin erromeria sortzea. Gerra aurrean herriko talde batekin, bere antzeko gazte batzuekin, ibiltzen zen hara eta hona: Urkiolara, Orozkora, Durangora... Gerraostean hasi zen Mauriziarekin.

4. Alboka oso antzinakoa; sei nota besterik ez

- **Erref:** ATE-012/012
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:10:35. **Bukatu:** 00:12:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

Albokarekin "jotak" edo biribilketak jo daitezke, baina tangoak edo halakoak ez, notarik ez duelako. Sei nota besterik ez ditu (jo egiten ditu). Solfeorik ez dakiela eta alboka jotzeko ez dela behar dio. Albokari nola putz egin behar zaion. Alboka oso-oso zaharra da; soinu txikia berriagoa.

5. Aitonarentzat denbora-galtzea zen alboka

- **Erref:** ATE-012/013
- **Iraupena:** 0:02:02. **Hasi:** 00:12:10. **Bukatu:** 00:14:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika
- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Aitonari ez zitzaion gustatzen alboka, baserrian beharrak egoten zirelako eta harentzat musika denbora galtzea zelako. Ez daki aitak norekin ikasi zuen alboka jotzen, baina haren gazte-denboran albokari asko zeuden. Bizkaia osoan jotzen zen. Sasoi baten alboka galduko ote zen pentsatzen zuen, baina gazteak badatozela atzetik dio.

6. Alboka jotzeko arnasketa

- **Erref:** ATE-012/014
- **Iraupena:** 0:02:32. **Hasi:** 00:14:12. **Bukatu:** 00:16:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika
- Ohiturak eta bizimodua » Bizioak

Laburpena:

Alboka jotzeko arnasketa. Bi aldiz jotzen du azalpenak emateko. Putz egiten den bitartean sudurretik arnasa hartu behar da. Berak erraz ikasi zuen teknika. Semeak, adibidez, ondo jotzen omen du, baina arnasa hartzeko gelditu egin behar. Ez du erre izan, tarteka bakarrik. Medikuen esana.

7. Alboka nola egiten den; pago-egurra

- **Erref:** ATE-012/017
- **Iraupena:** 0:02:28. **Hasi:** 00:17:56. **Bukatu:** 00:20:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

<p>Albokak nola egiten diren. Normalean pago-egurra erabiltzen da. Pagoa ez bada neguan botatzen, sitsak jaten du. Ilbeheran bota behar izaten da. Adarrak. Beharleku txarrena pitak egiten. Kanaberarekin egin izan ditu. </p>

8. Albokak egiteko, argizaria

- **Erref:** ATE-012/018
- **Iraupena:** 0:02:36. **Hasi:** 00:20:24. **Bukatu:** 00:23:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika
- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Artisauak

Laburpena:

Argizaria Arabatik ekartzen du. Inguruetan patatari botatzen zaion botikak erleengan eta eztian eragina duela eta kontuz ibili behar dela dio. Alboka itsasteko erabiltzen da argizaria; kolak arazoak sortzen ditu. Behin Kanarietara bi alboka bidali zituen eta argizari gabe iritsi ziren beroagatik. Albokaren zatiak. Zenbat denbora behar duen alboka egiten.

9. Erromeriak arrastietan; "aimaritarako" etxera

- **Erref:** ATE-012/021
- **Iraupena:** 0:01:51. **Hasi:** 00:26:02. **Bukatu:** 00:27:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra

Laburpena:

Gerra aurreko erromeriak. Alboka arrastian izaten zen eta "aimaritarako" (abe marietarako) etxera. Neska-laguntzeak; orduan be muxuak eta halakoak izango ziren, baina ezkutuan. Abadeek soinu txikiari infernuko hauspoa esaten zioten. "Baltseoa" herri batzuetan debekatuta.

10. Erromerietan txakur txikia dantzako

- **Erref:** ATE-012/023
- **Iraupena:** 0:00:46. **Hasi:** 00:28:29. **Bukatu:** 00:29:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Itsasoa » Lehorreko lanak » Diru kontuak

Laburpena:

Albokariak diru gutxi jasotzen zuten erromerietan. Dantza egiteagatik txakur txikia kobratzen zen piezako eta pieza luzeak jotzeko eskatzen zuten. Gaur egun diru gehiegi erabiltzen dela dio.

11. Garai batean "tertulia" luzeak auzolanaren ostean

- **Erref:** ATE-012/027
- **Iraupena:** 0:00:56. **Hasi:** 00:33:25. **Bukatu:** 00:34:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoan arteko harremana
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:

Negu partean baserriko hainbat lan auzolanean egiten ziren; gero jendea etxeetan batzen zen eta goizaldera arteko "tertuliak" egiten zituzten. Lihoaren lanak egiterakoan, adibidez. Bere sasoiak jada ez zela halako tertuliarik egiten dio.

12. Hamazazpi urterekin neska-lagunarekin hasi

- **Erref:** ATE-012/028
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:34:21. **Bukatu:** 00:35:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Plazetan ibiltzen zen alboka jotzen. Neska asko izaten zituen inguruan.

Hamazazpi urterekin hasi zen neska-lagunarekin (hark hamalau zituen) eta berarekin ezkondu zen, hogeita hamahiru urte zituela. Bitartean hiru urte egin zituen gerran, baina andreak itxaron egin zion.

13. Emakumeak buru gainean teila ipini, etxetik irteteko

- **Erref:** ATE-012/030
- **Iraupena:** 0:01:09. **Hasi:** 00:36:01. **Bukatu:** 00:37:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Antzina esaten zuten kontu bat: emakumea ezin zela etxetik irten gizonaren baimenik gabe. Orduan, emakumeak teila zati bat jartzen zuen buru gainean atarira egurretara edo ur bila joateko, eta gizonak ezin ezer esan. Berak ez ei du ezagutu halakorik.

14. Biribilketa, Leon Bilbaok albokarekin jota

- **Erref:** ATE-012/035
- **Iraupena:** 0:02:08. **Hasi:** 00:40:46. **Bukatu:** 00:42:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

Albokarekin jotako doinua: biribilketa.

15. Maurizia, emakume ausarta

- **Erref:** ATE-012/037
- **Iraupena:** 0:01:06. **Hasi:** 00:42:59. **Bukatu:** 00:44:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Ikazkinak eta txondorrak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Mauriziak aita omen zeukan panderojolea. Emakume ausarta zen. Aitarekin ikazkintzan ibilia zen, baita trontzarekin zuhaitzak botatzen ere.

Transkripzioa

- Mauriziak eitten zittuezan koplak edo?
- Honek? Kanteu? Bai.
- Baiña berak asmatu.
- A! Asmau?
- Berak in o beste bati entzun?
- Ba beste batena entzunde hak be. Aite esaten eban hak eukiten ebala panderistea. Ez dakit ba.

- Haren aitte?
- Haren aitte. Ez neben ezautu nik.
- Andra garbosa izengo zan.
- A? Buf... Baten esan eusten: "Ni gixon batek ez nau bildurtu gero!" diñosta. "Ez eutsun eingo". Ta "Botako jok ointxe zeoze, ba" ta "Zuk be ez, e!". "Ez, ez, ni formala naz ta nik... nik ez dot balio". [...] "Ni ez nau bildurtuko gixon batek gero" esan eben. Ta aitegaz ikezgiñan-ta ibiltan zan ha basoan, arbola botaten ta, trontzeagaz.
- A bai? Bera?
- Bai.
- Trontzitzen bera?
- Bai.

16. Arrantza, lizentziarekin eta mugatuta

- **Erref:** ATE-012/041
- **Iraupena:** 0:02:26. **Hasi:** 00:51:12. **Bukatu:** 00:53:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza
- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa

Laburpena:

Esparbelarekin eta sarearekin ibili izan da arrantzan. Gaur egun lizentzia behar da eta mugatuta dago, baina jendea ezkutuan ibiltzen da. Beraiei ortutik barazkiak lapurtzen dizkiete eta arrainik dagoen lekutik ezin hartu? Sasoika, astean bitan botatzen dituzte, biberetan hazitako arrankariak.

17. Oilagorretarako zaletasuna

- **Erref:** ATE-012/042
- **Iraupena:** 0:01:49. **Hasi:** 00:53:38. **Bukatu:** 00:55:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza
- Natura » Flora

Laburpena:

Oilagorretarako zaletasuna izan du. Txakur onak izaten zituen. Garai bateko basoak desberdinak: pinu gutxiago eta harizti gehiago. Azeri gutxi ikusi izan du.

18. "Azeri zuriak" oilo-txaboletara

- **Erref:** ATE-012/044
- **Iraupena:** 0:01:13. **Hasi:** 00:55:57. **Bukatu:** 00:57:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Natura » Fauna » Basoko animaliak

Laburpena:

Garai batean basoetan oilo-txabolak egoten ziren. Bi azeri klase egoten zirela dio: azeri normalak eta "zuriak" (pertsanak). Azken horiek gaeuz txaboletara joan eta oiloak harrapatzen zituztela dio.

19. Gerran gaztelaniaz egin behar eta jakin ez

- **Erref:** ATE-012/046
- **Iraupena:** 0:00:48. **Hasi:** 00:57:18. **Bukatu:** 00:58:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939)
- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua
- Euskara » Beste hizkuntzak eta hizkerak

Laburpena:

Garai batean Arabara joaten ziren morroi, gaztelania ikastera. Bera gerrara joan zenean, gaztelaniaz egin behar, baina batere jakin ez! Azpeitiarrekin ulertu ezinda.

20. Gerra sasoian Gorbeian lo egin behar elurrarekin

- **Erref:** ATE-012/047
- **Iraupena:** 0:02:39. **Hasi:** 00:58:06. **Bukatu:** 01:00:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Natura » Meteorologia
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Gerra sasoian, elurra egonda ere, trintxeran lo egin behar. Gorbeiaiko puntan sarri lo egin behar izan zuen. Nola prestatzen zuten ingurua: fusilak ipini, gainetik toldoa bota, txilarra... Garai bateko jendea gogorragoa zela dio, behintzat aurrera ateratzen zirenak. Berak zazpi hilabete ingururekin tifusa izan zuen, baina bizirik atera zen.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2024-04-16

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com